

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Kontxita Setien Ezeiza

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1926-2014)*

Aurkibidea



Biografia



Gurutzeta baserrian jaio zen. Zazpi senide baziren ere, bat txikia zela hil zitzairen eta sei hazi ziren etxean. Donostian esnea partitzen urte askoan ibili izan da, baina etxean lan asko izaten zuen horretaz gain. Izan ere, Gurutzetan sagardotegia izaten zuten eta sagardoa egiteaz eta saltzeaz gainera, jaten ere ematen zuten. Tolosako feriara joanda ekartzen zuen Kontxitik sagardotegian prestatzeko behar zen jakia, bere "xextera" buru gainean hartuta.

Zintak

URN-026

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-02-16
- **Iraupena:** 88 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Garotatik etorri eta dolarera lanera

- **Erref:** URN-026/003
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Gurutzeta baserria oso zaharra zen baina orain berri-berria dago. Dolarea ere bazuen. Bera ere makina bat lan egindakoa da sagardogintzan. Inoiz basotik etorri inastorrakin (garoa eta orbela) eta dolarera zuzenean lanera. Beste modu batera bizi omen da orain jendea.

2. Esnea saltzera Donostiara

- **Erref:** URN-026/004

- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Anai-arrebatatik txikiena izan arren, asto-lan asko egitea egokitu zaio Kontxitari. Esnea astoaz eramaten zuten erreperideraino, han marmitak autobusera igo eta Donostiara joan ohi ziren saltzera.</p>

3. "Infernuak ere hartuko ez zuen astoa, ostikalaria eta koskaria"

- **Erref:** URN-026/005
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:08:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Hasieran ia esnea bakarrik eramaten zuten Donostiara saltzera, baina gero patata eta beste gauza batzuk ere bai. Astoaz zera dio: "asto bat bagenun inpernuak ere hartuko ez zuena, ostikalaria eta koskaria". Gaiztoa benetan. Behin anaiak segaz buruan jo eta lurrera bota zuen. Istorio barregarria.

Transkripzioa

-Zer egiten zenuten, esnia?

-Esnia. Aurrenien esnia bakarra. Baiño geo baserriya atera zan saltzea ta dirurik ez ta komerik zian han. Patata eiñen hasi giñen. Esniak eramanda, e. Esnia beti galazi zuen arte. Geo autobusa juten zanian janaya ittea astua ta karruakin, anaiya ai zan lekua, anai gaztena nee aurrekua. Harea. Asto bat bagenun inpernuak hartuko ez zuna. Ostikalaiya ta koskalaiya. Goatzen naiz.

-Gaxtua.

-Gaxtua! Egun batian anaiyak, jana itten ai giñan eta besaka alpapa botia zakan, e, baiño han ere ez zan konforma.... Aittu zan eta txist! eta martxa. Segakin kanka! Kirten zea, atzeko, nola jartzen da txabeta ta. Harekin eman ziyon nunbait punto txarrian burun eta seko lurrea. Belaxe osterata altxa ta ostikoka. Ondo zio.

-Ez zan ordun makala.

-Ez, ez. Baiño hua seko botatzia. Nunbait punto txarrian edo. Haren letxiakin!

4. Lurra lantzen kirrimarroa, goldea eta area erabiliz

- **Erref:** URN-026/007
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:11:00. **Bukatu:** 00:12:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Laian ez du sekula egin, eta ikusi ere ez egiten. Kirrimarroa pasatzen zitzaion lehendabizi lurrari belarrak-eta kentzeko. Gero goldatu. Malkarretan zotalei eutsi egin behar izaten zieten behera ez erortzeko. Gero, harria pasatu eta zokorrak jo. Arto eta baba asko hartzen zuten.

5. Ahizpa Donostiara neskame hamabi urterekin

- **Erref:** URN-026/008
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:14:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Ahizpa zaharrena etxean aritzen zen lanean gehienbat eta bigarrena, berriz, neskame joan zen Donostiara oso gazte. Hango etxekoandreak 12 ume izan zituen. Oso elizkoiak omen ziren.

6. Oinetako eta jantzi eskasak

- **Erref:** URN-026/010
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:17:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Abarka zahar batzuekin ibiltzen ziren hotz handia egin arren. Perkalezko soinekoa eta jertse txar batekin joaten omen ziren mendira. Galtzarik ez zuen inork janzten. Berak operatu zenean jantzi zituen aurrenekoz, 43 urterekin, eta lotsa galantaz gainera.

7. Komunioa egitera dotore jantzita

- **Erref:** URN-026/011
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:20:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Izebak egindako soineko luze zuriarekin egin zuen komunioa. Mantilla, zapatak eta galtzerdiak utzitakoak edo oparitutakoak ziren.

8. Organdizko soinekoa zeramanaren inbidiatan

- **Erref:** URN-026/013
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:20:52. **Bukatu:** 00:21:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Denak antzera jantzita egin zuten komunioa, batek izan ezik: "Organdí" tela klaseaz egindakoa omen zeraman. Denak hari begira inbidiatan.

9. Doña Francisca, kaskarrekoak ematen eskola erakusten baino hobea

- **Erref:** URN-026/015
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:24:16. **Bukatu:** 00:26:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Dotrina sakristian ikasten zuten. Euskaraz. Eskolan, berriz, dena erdaraz. Doña Francisca maistra eskola ematen baino kaskarrekoak ematen hobea zen. Gero beste bat izan zuten ona, moja joan zena. Baina gutxi joaten ziren eta ezin asko ikasi.

10. Maizterrak ziren gehienak bezala

- **Erref:** URN-026/016
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:26:03. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Eskolara gutxi joan zen, etxean lan asko zegoelako. Bi anai gerrara joanak eta lursail handiak lantzeko. Maizterrak ziren, Urnietako gehienak bezala. Gerora, 26 mila durotan erosi zuten baserría.

11. Anaia istripuz hil fabrikan

- **Erref:** URN-026/018
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:28:15. **Bukatu:** 00:30:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Anaia zenaren historia. Oso langilea zen. Eta mutil berezia: sendabelarrak erabiltzen zituen, eta dotore janzen zen; oso gutxi zuten gabardina garai hartan, eta bera zen horietako bat. Goizuetarako joera handia zuen. Hango jaien bezperan gertatu zitzaion istripua.</p>

12. Kaniketan eta kurkuluxetan

- **Erref:** URN-026/020
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:30:55. **Bukatu:** 00:32:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Kaniketan asko ibiltzen ziren errekreoan. Lagun batek kanika berriak ekarri ohi zituen eta berak hari erasotzen zion gustura. Kurkuluxetan (tortolasetan) ere aritzen ziren.

13. Tomatada egiten

- **Erref:** URN-026/022
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:35:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Soroan eta baratzean lan asko egina da. Artoa eta baba, porrua eta tomatea... Tomate asko hartzen zuten. Ikaragarri kontsumitzen zen sagardotegian. Tomatada nola egiten zen kontatzen du.

14. Txorizoa, urdaiazpikoa, arrautza eta bakailaoa, sagardotegiko jakiak

- **Erref:** URN-026/026
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:43:38. **Bukatu:** 00:45:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Antzina ez zen hainbeste txuleta jaten sagardotegian. Txorizoa, urdaiazpikoa eta arrautza, berriz, ugari. Bakailao-tortilla ere bai. Aste barruan ere jende asko ibiltzen zen.

15. Tolosako azokara sagardotegirako jenero bila

- **Erref:** URN-026/027

- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:45:27. **Bukatu:** 00:47:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Tolosako feriara joaten ziren larunbatetan trenean. Han erosten ziren arrautzak, arkumeak eta abar. Behin, erositako arkumea berak hil eta larrutu behar izan zuen.

16. Hernani eta Urnietako jendez betetzen zen sagardotegia

- **Erref:** URN-026/029
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:48:35. **Bukatu:** 00:52:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Jende asko behar zen lanerako sagardotegian. Familiakoak ibiltzen ziren gehienak. Ostegun eta Ostiral Santu Egunak izaten ziren jendetsuenak. Hernanitik eta Urnietatik, bietatik etortzen zen jendea.</p>

17. Txintxo-txintxo nobio denboran

- **Erref:** URN-026/032
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:55:20. **Bukatu:** 00:56:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Konfesatzera joan behar zuten, txintxo ibiltzen ziren ezkongai garaian. Orduan ere izaten ziren haurdun geratuta ezkondu beharrekoak. Ez du jator ibiliaren penarik.

18. Erromeriara joateko garaian sagardotegian lanean

- **Erref:** URN-026/033
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:56:15. **Bukatu:** 00:58:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

Portuan ibiltzen ziren igandetan baltsean negu partean. Udan Oilalumen zen

erromeria-lekua, baina sagardotegia dela eta ez zuten hara joateko astirik izaten. Aita ostegunero joaten zen Hernaniko feriara baina beraiek ezin askotan erromeriara joan.

19. Ereñozuko jaietatik itzulera penagarria oinez

- **Erref:** URN-026/034
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:58:10. **Bukatu:** 01:00:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Ereñozura mendiz joan ziren festetara behin, bueltan autobusez etortzeko asmoz, baina autobusa beteta zegoenez, oinez itzuli ziren. Berandu, ilunduta. Etxera heldu eta gurasoek, errieta emateaz gain, esnetara bidali zuten beste baserri batera. Hurrengo goizean seietan jaiki behar belarretara joateko.

20. Hurgintza, gauza sekretua

- **Erref:** URN-026/038
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:11:30. **Bukatu:** 01:12:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Hurgintzaren ingurukoak gauza sekretuak ziren. Ez zen horretaz hitz egiten. Paristik etortzen omen ziren haurrak. Kontxita familia pobreakoa zen eta berak josi zituen umeen atorrak eta abar.

Transkripzioa

-Jaiotzerakuan, berriz, emakume bat haurdun geratzen danianetxeko ama, etxeko andria, beste umiei eta esan egiten al zaie?

-Ordun? Nei ez zat gertatu, txikia nitzan eta, baiño ez zat iruitzen.

-Esaten due ez omen zala hortaz hitz egiten?

-Keba. Gauza sekretuak zien. Paristik ekartzen zan eta.

-Parisetik, e?

-Hoixe.

-Eta prestaketa politta izango zen ba haurdun gelditzen zanian, sehaskak eta mantak eta. Erosi edo josi edo zer egiten zien maindiriak eta?

-Mantak eta bai, ze erremeriyo. Baiño hoek etxe onekuak zien ta. Eosi?

Jolin! [...] eta. Gutzako ez zan holakoik, gue etxian pobriak zien. Neonek josten nittun kamisoiak eta; almueda-azala eta; maindiriei ere "vainica ciega"n dibujo batzuk ein, eta hola.

21. Ura, oso gauza inportantea

- **Erref:** URN-026/040
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 01:14:00. **Bukatu:** 01:16:03

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Neska koskorra zela ipini zuten etxean ura. Baina lehortea zenean ez zen ia heltzen. Berari ez zaio asko suertatu uretara joan beharra. Ura gauza inportantea zen orduan.

22. Gobara

- **Erref:** URN-026/041
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 01:16:03. **Bukatu:** 01:18:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Gobara amak egin ohi zuen, eta hura gaixotzen zenean Kontxitak beldur ikaragarria zion langintza hari. Galtzak koipez beteta egoten ziren eta haiek garbitzea ez zen batere lan samurra.

23. Arropa garbitu berria astintzen eta zabaltzen

- **Erref:** URN-026/042
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 01:18:15. **Bukatu:** 01:20:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Lagarto jaboia erabiltzen zuten batik bat. Lejia ere bai arropa zuriarentzat. Arropa astintzeko teknika. Alanbrean zabaltzen zen gobara, ez belarretan.

24. Berak euskaraz gaizki, ilobak oso ondo

- **Erref:** URN-026/045
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:22:50. **Bukatu:** 01:23:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Ilobak oso ondo egiten du euskaraz, "benetako euskaraz". Berak ez, hitz erdiak erdaraz egiten baititu

25. Hika seme-alabei, zuka ilobei

- **Erref:** URN-026/046

- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:23:58. **Bukatu:** 01:26:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Donostiako plazan egoten zenean justu samar ibiltzen erdararekin. Hika beti anai-arrebekin eta seme-alabekin. Ilobei zuka. Lagun artean bietara. Berorika apaizari eta medikuari.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-07-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com